

## *Esperanza Uribarren Liziaga*

*Eskoriatza,  
Gipuzkoa  
(1922-2007)*

Aurkibidea

**Biografia**



Eliza ondoko etxe batean jaio zen 1922an. Ama bertakoa zuen eta aita, berriz, Garagartza auzokoa. Mojetan ibili zen eskolan lehenbizi, eta gero eskola nazionaletan 13 urtera arte. 13 urterekin neskame joan zen Arrasatera. Bergaran eta Eibarren ere ibili zen neskame lanetan geroago, 19 urte ingurura arte. Senarra aguazila zenez, ezkondu ostean udaletxean bizi izan ziren 32 urtez.

# Zintak

## ESK-027

- **Proiektua:** Eskoriatzako argazki fondoaren dokumentazioa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Data:** 2005-01-01
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** CD
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

## Pasarteak

### 1. Mojetako gaiztakeriak; zigortuta eskailerapean

- **Erref:** ESK-027/001
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

#### Laburpena:

Mojen eskolan egiten zituzten gaiztakeriak. Behin moja bat gaixo zegoela eta, isilik ibiltzeko esan zieten, baina beraiek irrintzi egin zuten. Zigortuta, eskailerapera eramaten zituzten mojek.

#### Transkripzioa

-Zigorra, e, lenengoko egunien zigorra.

-Zigorra?

-Hiru urte gaz. Ba gaiztokeixan bat eingo nauen, eta hango zigorra izeten zan eskillapeia. Eskillapeien igual ordubete edo bi ordu edo holan. Gaiztuek giñen geu be, e, gaiztuek giñen.

-Zer egingo zenduen ba?

-Okerkeixan bat. Ni neu enaz gogoratzen ze ein nauen. Oin, geruau ze ein nauen bai. Ba pentsa: auen monja bat auen oso gaixki. Monjak zien; hau etxe inguru danau lehen zan mojan konbentua hori etxioi. Baiña honek terrenuok monjanak zien honek, e. Orduan gu ibili gitzenien eskolan izengo zan horixe, caja de ahorros antxiñako hori izengo zan patixua, eta hortik hona kantoiraiño eskolia. Eta mojak etorten zien etxetik eskolara. Eta harek joten auen kanpanillia sartzeko eskolara, ezta? Eta moja bat auen gaixki, eta esan oskun ixilik egoteko, ezta? Ixilik, klaro, monjak esaten auenien "la hora" urteteko, han alboroto tremendua egoten zan, ezta. "Bueno, sor María Aranzazu oso gaixki dao eta ixili-ixili". Ba ez jauna. Maria Luisa Zaldua, hil zan, neure laguna, eta esan gauen: "lekaixo ein bihar dou / bihou/". Ein zauen, monjak esan ixilik egoteko, baiña guk lekaixue ein gauen.

-Lekaixua ze da?

-Irrintzi bat!

-A bai, e? Hantxe gelan?

-Hantxe.

-"Qué cuadrilla"!

-Urten bihar gauenin /bigauenin/, urteteko be ba "en fila" jarten zan orduen eskolan, e. Eta in gauen, horixe irrintzixoi in gauen, eta eskillapera bixok.

Han illuna egoten zan e? Baiña sartu ginduen han eta guk mojak baiño inddar gehixao geuken guk, barruan egon arren, preso egon arren. Eta moxia holan hankia ipinita atien, bestaldetik bi moja, eta gu bi neskaitilla barruen, eta moxia atia zabaldu eitten gauen. Urten gauen; gero hurrengoko egunien... Ordun izeten zan kopia, "cien veces, quinientas veces" edo "mil veces". No haré más o holan.

-Zigortuta.

-Zigortuta.

## 2. Mesedeetako eskolan soinekoa belaunen azpitik eta ilea liso

- **Erref:** ESK-027/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

### Laburpena:

<p>Klausurako mojak ziren mesedeetakoak. Eskolako janzkera; soinekoa belaunen azpiraino eraman behar izaten zuten, bestela eskolatik botatzen zituzten eta. Behin amak belaunak estaltzen ez zizkion soineko bat egin zion eta mojek eskolatik bota zuten. Ilea kizkurra zutenei sokarekin lotzen zieten ilea lisatzeko.</p>

### Transkripzioa

-Horrek zien "Mercedarias de la Vera Cruz", ezta? Zu egon ziñenak.

-"Mercedarias... de clausura eran, e". Zegatik hemen residentzian-eta dasenak horrek be die "mercedarias, pero son libres", eta bestiek zien "de clausura". Gero hamendik fan zien horrek Berrizera. Berrizen uste dot dauela konbentu bat "de las Mercedarias de Clausura".

-Eta zu uniformiakin eta holan faten ziñen klasera?

-Ez, ez, ez. Era bat egon zan, ezta? "De uniforme", soiñeko baltza izeten zan. Soiñeko baltza ta kitto. Eta hola. Baiña orduen ahal dauenak itten auen, baiña ezin auenak ez. Eta gaiñera, fan biher zitzen mangakin honaiño, eskotia holan eta belaunperaiño soiñekua, e. Motzaue erueten bazauen, kalera. Ni akordetan naz neure zorion egun baten gure amak in osten soiñeko barri bat eta fan nintzen haregaz soiñekuaz eskolara eta monjak bialdu niñun kalera. Zegatik itxuria belauna ez nusten tapetan! Berezko ille kriskue aukena be, eskolan larri egoten zan orduen monjakin, e. Ez dakit zer pentsetan auien monjak, "por presumir" eitten zala edo zer. Eta "a quitar". Izen dana la sacristana, horrek berezko ulia dauko holan, eta zenbat bider; eta hori baiño zaharraue akordetan naz beste bat, Emilia edo euken izena, sokiaz lotuta, e. Sokiaz lotuta uliak atzeruzka liso eukittek.

## 3. Merzedarietako eskolan zazpi urtera arte

- **Erref:** ESK-027/003
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:08:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

## Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

## Laburpena:

Mesedeetako eskolara astelehenetik larunbatera joaten ziren; ostegun arratsaldea izaten zuten jai. Eskolan zer ikasten zuten. Jaunartzea egin artean ibili zen mojetan eta gero eskola nazionaletara pasa zen. Berak zazpi urterekin egin zuen jaunartzea, baina bere lagun batek seirekin. Josten ere ikasi zuen eskolan eta mojek solfeoa ere irakasten zuten. Bera 13 urtera arte ibili zen eskolan eta gero neskame joan zen, baina batzuek beranduagora arte ikasten zuten.

## Transkripzioa

-Orduen ez zan izeten oingo moduko oporrik eta. Eguena, osteguna, atsaldia. Eta kitto. Bestela dana izeten zan... Jaia jai, e. Astien eskolako jai ostegun atsaldia. Ostegun atsaldia izeten zan eskola bakua.

-Zapatuen be faten ziñaten?

-Klaro. Aste guztia. Eguena ez, esaten dotena, ostegunien atsaldia jai.

-Eta klasien zer emuten zenun, goixetan "matemáticas", eta zer gehixao gogoratzen dozu?

-Bueno, bai. Irakurri, idatzi eta gero abestiren bat elixan monjakaz; abestiak. Ni monjatan egon nintzen lelengo jaunartzera arte. Gero handik ostien egon nintzen nazionaletan, plazan.

-Aranan.

-Aranan, bai.

-Eta zenbat urtekin ein zendun jaunartzia?

-Zazpi. Nire lagun batek ein auen xei. Horko... espabilladia zan eta. (...) Pilar, oso intimia da laguna, eta han dau, eta haretzek auken xei, gaztiena kuadrillatik haxe izen zan, baiña bestiok gauken zazpi.

-Eta gero egoten zan "Mis Labores"?

-Bai. Nik badauket neure aiztiekin inddako uge-erropak be daukat monjetan bordetakuak, eta neuk be bai eitten nauen bordau eta errepassau. Klaro, tela bat eruten zauen eta eitten utsuen eurak artazixakin holan, "un siete". Ha ein biha zauen, ojo! Ebagixa, sietia hamen. "Una espiga" urten biha auen hor. Ha ez bauen urtetan" a soltar todo. Otra vez a volver a empezar". Eta ojaliak eta bordau, punto de cruz, bolilluak be bai, nik ez nauen ikasi. Nik ikasi nauen "malla".

-Mailla? Eta hori zer da?

-Arrantzailien bezelako... Ez dakizu zelan arrantzailiek ibiltten dien ba hor. Ba nik hori ikesi nauen eskolan, gazte; pentsa, hamahiru urte arte egon nintzen eskolan. Hamahiru urtekin fan nintzen Arrasatera umezain.

-Hamahiru urtekin lanera orduan?

-Bai. Nik behintzat fan nintzen eta beste batzuk be antzera batzuk. Beste batzuk hamabost-hamaxe urtera arte be bai eskolan. Gu hemen monjetan gabitzela, gure doble edadekuek abitzen ondio eskolan.

-Luzaruan ikasten zan.

-Batzuk bai. Gero montau auen solfeua be monjak.

-Nibel zan, e, preparaziñua monjak.

-Bai, bai. Bi aizta zien monjak. Batak pianua eta bestia "como profesora" egoten zan.

## 4. Mojetatik eskola nazionaletara aldaketa

- Erref: ESK-027/004

- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:08:05. **Bukatu:** 00:10:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

#### Laburpena:

<p>Eskola nazionala askatasun gehiago zeukaten mojetan baino. Jolastera plazara irteten ziren. Eskola nazionala ez ziren hain zorrotzak, baina han ere jartzen zituzten zigorak. Pertsona nagusiagoei errespetu handia zitzaien. Doña Rosina izan zen bere irakaslea.</p>

#### Transkripzioa

-Eta gero joan zifrenian monjetatik beste eskolara, nazionalera, ze aldaketa ikusi zenun? Ze zan, berdiña edo hobetuau?

-Libertade gehixau. Orduen be errekreio moruen edo mojetan be hor zan patixo bat, eta han patixuen egoten giñen. Baiña hor urtetzen zeuen plazara. Eta izeten zan, nik esaten dotena, gure ikestie izeten zan, ba klaro, danak batera emuten auien, esaten auenien maistriak: "Geografia", danok jarten giñen pillan. Eta ez zakixena be salbau eitten zan. Zegatik bestiei beitu ezkerro, ahuai erain ezkerro inda auen. Inda auen. Eta zan beste... honek zien...

-"Más rígidas"?

-Bai, honek zien "más rectas, más"... Harek be, han be, eskolan be repartiduten zien edarrak, Orduan "todo era palo". Reglia edo. Oin uste dot ez dabela zigorketan ezta ezebe. Baiña orduen maistrakin eskolan plazan gabitzela, bai igual ez dotsazun ixten persona nausixauai eskumia pasetako, ezta? Zu bazoiez zeu eta bera fan biher badau bestaldera, fan daixela. Ba enteretan bazan, orduen persona nausixek be esan: "oye que fulanita o menganita... a ver qué habia en la escuela, qué órdenes o qué..." Eta ya "pues tenías castigo". Maistriak be regliaz, ni akordetan naz beste batei ba emun bihar otsen, eta bestiek ipiñi auen txaketie burutik eta eskola guztien postaka [...], danak korrika hantxe eskolan. Baiña ha zan beste gauza bat.

-Eta zein zan zuen maestria?

-Doña Rosina.

-Hemen Eskoriatzakua zan?

-Ez, ez. Senarra zan Eskoriatzakua. Aretxaga. Horrek... arotzan anaia zan Aretxaga.

## 5. Eskolan neskak eta mutilak banatuta

- **Erref:** ESK-027/006
- **Iraupena:** 0:58:15. **Hasi:** 00:11:45. **Bukatu:** 01:10:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena:**

Neskak eta mutilak banatuta egoten ziren eskolan, batzuk alde batean eta besteak bestean. Komuna bien tartean zegoen eta komun inguruan elkartzen ziren, batzuetan aurrez ordua jarrita.

**Transkripzioa**

-Eta neskak eta mutillak faten ziñaten [...]?

-Ez, neskak eskumakaldien eta mutillak ezkerrien, bertan danak baiña...

-Separados.

-También ya había otra cosa. Hamen auen patixo bat, ezta?

-Bai.

-Eta hor azen mutikuen eskolako komunak, eta hamen neskatillanak, eta alkartzen giñen neskatillak eta mutikuak holan, komunera fandakuen.

Batzuetan ordue ipiñita eoten zan. Orduen be, orduen be. Ordue ipiñitta egoten zan ba batzuk komunera oiezenien, bestiek eskaketan zauen komunera fateko, eta igual ikusiko zauen, igual ez.

**6. Eskolako bizipenak 34ko erreboluzioan**

- **Erref:** ESK-027/007
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

**Laburpena:**

<p>Jolas-orduan ere neskak eta mutilak banatuta ibiltzen ziren, ordu desberdinetan irteten ziren eta. Eskola bukatutakoan elkartzen ziren soilik. 1934ko erreboluzioa irten zenean bera zigortuta zegoen; orduko bizipenak.</p>

**Transkripzioa**

-Errekrea orduen be aparte. Errekreuan be neskak ordu bat eta mutillak beste bat.

-A, hori ez nekien, beittu. Oseake imposible.

-Orduen be ze izen zan? Treintaycuatro izen zan oktubreko reboluziñua.

Orduen be ni zigortuta nenguen. Arrasaten Oreja-ta hil zittuenien ostirala zan, eta ostiraletan ferixie egoten zan Arrasaten, ganauena eta hola. Eta hemen Mazpelatik-eta danak faten zien Arrasatera eta ez utsien itxi pasetan, Muxibarren edo Arrasaten orduen panadera bat auen, eta buelta eiñ eta plazan sartu zien, plazara ekarri zittuen ganau guztiek, eta orduen errekreio sasoie zan, eta doña Rosinak: "tú castigada, aquí!". Eta baiña bentanatik urten nauen igual-igual. Plazan ze auen. Baiña aparte, horrek izeten zien aparte. Gero bai, urteten zauenien neskak eta mutikuek danok eitten gauen jolas batera.

**7. Neguko jolasak; garizuman txirikiletan**

- **Erref:** ESK-027/008
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:01:30. **Bukatu:** 00:04:30

- **Multimedia:** audioa online entzungai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

#### Laburpena:

Neguan egiten zituzten jolasak: sokasaltoan, txorromorroka, "tres navíos"-ka, kuikika (gordetzen) Garizuman txirikiletan egiten zuten. Nola jolasten zen azaltzen du.

#### Transkripzioa

-Eta zer jolas eitten zenun?

-Orduan neguen izeten zan sokasaltua, sokasaltoka. Txorromorroka, neskak eta mutillek txorromorroka. Hori bai, eta sokasaltoka be bai. Eta gero itten zauen "Tres navíos", edo kuikika izeten zan gordeten. Ba horrek neguen. Eta gero Garizuman izeten zan txirikillia. Bakitzu zer dan txirikillia?

-Bai, esan dustie, baiña komentau zelan dan...

-Die egur bi, bat senduaua luzia, mazetia esaten jakona. Eta harek astie eukitten auen apur bat zurittuta, heltzeko; heltzeko edo bueno jakittek nun... Gero txirikillie zan txikixa eta punta bixak zorrozuta. Eta orduen ha txikixa ipintten zauen lurrien, eta mazetiaz jo eta gero azertetan bazauen, hainbeste pauso, bat; segun nun jolas itten zauen. Ba zelan elizpeien "por ejemplo" azen hamen harrixak modu batera, eta beste bat bestaldera. Haraiño arraixaraiño igual kontetan zan bat, eta zenbat arraixa, horrenbeste. Zuk azertetan bazauen mazetiaz txirikillia, hori mazetiaz txirikillia jotia izeten zan, ez bazeuen azertetan...

-Ez dau emoten erreza.

-Bai. Zuk hartzen zauen txirikillia eta jotzen zauen hola, eta, klaro, bekokixan jotzen baziñun, ba pentsa. Eta baitta izeten zan aidian hartzera be. Eta aidian hartzera ipintten zauen jertsia edo txaketia edo eukutzuna hartzeko. Igual esaten zauen: aidian hartutzera, bost puntu, eta gero ez bazauen azertetan... Gero mazetia ipintten zan holan. Eta torria marketan zan holan, zapi bat, eta mazetia egoten zan, zuk txirikilla botata gero ha mazetia han. Eta torrera ez bazan aillegetan, orduen itten zauen "patxetak" esaten jakon, hola jo txirikillia puntan eta zeuk jotzen zauen, eta zenbat arraixa, hainbeste puntu. Gero altzuan hartutakuan baaukatzun beste bost, ba harek kontuak ba, esaten zauen: ehuneraiño! Jokatu bihar dou gaur ehuneraiño. Eta hori izeten zan Garizuman, txirikillia Garizuman.

## 8. Garizumako jolasa: tortoliska

- **Erref:** ESK-027/009
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

#### Laburpena:

Tortoliska garizuman jolasten zuten. 6 tortolis eta kanikarekin jolasten zuten. Jolasaren inguruko azalpenak. Bildots bakoitzak bi tortolis izaten ditu eta etxean bildotsa jaten zutenean gorde egiten zituzten. Ardien tortolisak gogorragoak, handiagoak eta dotoreagoak ziren. Elizpea izaten zen euren jolaslekua.

### Transkripzioa

-Eta tortolesak be Garizuman. Nik ikusi nauen telebistan lengo baten, baiña ez da guk itten gauen moduko tortolesketia, ez, ez, ez. Hor ibilli zienak behintzat, kanikia baiña pentsau leikien zala "bola de pon-pin, de pin-pon". Guk kanikia. Xei tortoles eta kanikia. Eta klaro, tortoles bakotxak dauko lau era: bata, bestia, hola eta hola. Eta hor eitten auien bota eta ez, hartu be ez, holan. Guk eitten gauen hartu, eta gero esaten zana, bata bestiakin izeten bazan ba, zuk kanikie goixan eukotzun bittartien hau zure erie bazan, zuk hartu biher zeuena, bestia aber ipintten zauen haren erara. Eta haren erara ipintten bazauen, zuk ipintten zauen erara ipintten bazauen bestia, bixak zien zuretake. Baiña difizillena izeten zan holan eta holan. Hirugarrena eta laugarrena. Sei tortoles eta kanikia izeten zien.

-Eta tortolesak nun batzen zenun edo zela?

-Tortolesa ba klaro, orduan billots-denporan, ba klaro, etxien jaten bazan, edo amonanien edo tianien edo gure dana, ba billots bakotxak dauko bi tortoles. Baiña ardixenak izeten zien elegantiauek eta hobiauek askogatik be, hori bai, e! Ardixena zan beste gauza bat, ederraua, haundixaua eta gaiñera, zegaittik igual billotsenak zulatu eitten zien, baiña ardixenak ez, ardixena zan gogorraua.

-Jolasteko hobia.

-Bai, bai, bai. Jolasteko eta danerako, haundixaua. Eta arriskua auken harek, dotoria zan, jolines, ez dau samurra, poltsatxo bat eitten zan, poltsatxo bat, eta tortolesak eta kanikie poltsan. Baiñe Garizuman.

## 9. Aita fabrikan lanean eta ama josten

- **Erref:** ESK-027/010
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:08:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

### Laburpena:

Elizpea izaten zen euren jolaslekua. Han inguruan jaio zen bera 1922an, ama ere bertakoa zuen eta. Aita Garagartzakoa zen eta fabrikan lan egiten zuen, nagusi bezala, beste sozio batzuekin batera. Ama josten ibiltzen zen dendetarako; alkandora pezeta bat ordaintzen zioten, lepodun alkandora 5 erreal eta galtzontziloak 3 erreal.

### Transkripzioa

-Jarten zitzen armailla baten edo lurrien edo plazan elixpeien edo. Elixpeie izeten zan geure jolaslekua, gu onduen bizi giñen, ezta, elixatik eta.

-Hemen, San Pedron?

-Bai.

-Zu hemen jaixo ziñen?

-Bai. Nire ama be hangotxe basarrikua da. Aitta Garagartzakua zan, baiña ama hemengua.

-Ze urtetan jaixo ziñen?

-El año veintidos.

-Eta jaixo ziñenien zure gurasuak ze eitten zaiuen, aittak eta amak?

-Aittak, oiñ Ezkurran fabrikia, han goixan dauena, lehen zan Uribarren, nire aitta zan Uribarren, eta como jefe berak eitten auen, eta gero ba zien sozio



batzuk, eta ama josten [Amorrortugaz], zegatik eze orduen denporan fabrikie ipiñi auenien be lautik hiru fabrikan itxi biha zittuen, eta gero bategaz ba ama lau neskaz, eta apopilluek lau ero bost eukitten zittuen, eta gero hantxe zelabaitt josten, ama josten. Sobre todo Viteri denda hau botata dauena, hara, eta bestie be bai botata. Orduen zeñiek euken? Pagaldaik auken ha dendia. Eta Viteriri makiña bat kantzontzillo eta alkondara entregauta [daukat] nik. Alkondaria con tirilla, pezetia pagetan utsien amai. Eta kuelluaz bost erriel. Eta kaltzontzillue hiru erriel, hiru erriel.

-Orduan zure ama fiña zan.

-Biheko. Biheko. Ez auen beste erremeixoik euki.

## 10. Urik gabeko komunak etxeetan

- **Erref:** ESK-027/011
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:08:55. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

### Laburpena:

Eliza ondoko etxe batean jaio zen. Nolakoa zen etxea. Ura lapikoetan berotzen zuten hasieran eta gero ekonomika jarri zutenean, ekonomiak bazuen urarentzako depositu bat. Etxean ura bazuten arren, orduko komunak ur gabekoak ziren eta zikinak pilatzen joaten ziren hustu arte. Komuna urarekin noiz jarri zuten.

### Transkripzioa

-Eta zelan gogoratzen dozu etxia, zelakua zan barrutik? Sukaldia zelan zan?

-Sukaldia ni gogoratzen naiz, sukalde bajue nun auen ez naz gogoratzen, baiña ekonomikie ipiñi auenien hango tresnak amak korredorera atarata, ipiñi arte, hantxe korredorien janorduak ein zittuena, hori bai akordetan naz. Zegatik orduen berotu bihar zauen ura be, klaro, lapikue ta ipiñita su bajuen, etxien bertan. Eta gero ekonomikie jarri zan, depositotxo bat eukitzen auen ekonomikiek. Eta hamen itturri bat. Hamen deposittua eta hamen itturrixa, eta zuk haura zeuk bete bihar zauen /bizauen/, e. Eta hamen zela daukotzun txapie, txapien berotasunaz ha ura beroketan zan. Irikin erain be bai, segun zelako sua daukotzun. Baiña orduan. Eta gero orduan ekonomikia ipiñi zaniene, ipiñi zan..., zegaittik orduen komunak be zien ur bakuak.

-Eta han eukitzen zenuten ura ta bota?

-Ez, ez. Orduen izeten zan, ze esango dotsut nik, depositto bat bezela, ba zure gauzak hara oiezen. Gero lantzien behin ha atara eitten zan, e. Pentsau zelako useiña agerketan zan han etxostien. Eta gero iria edo botaten zan, garbittutakun botaten zan barrura. Eta gero ostera hurrengo beste txandara arte holaxe. Ni akordetan naz, txapie ipiñi zaniene guriene orduen ipiñi zen komuna urakin. Eta goixan be bai, bueno, pi pisokue da etxia, eta goixan be bai orduen urakin ipiñi zan. Bestelan ura bai, etxien ura baauen, baiña komunien, komunek han inguruan azenak danak zien ur bakuak.

-Udaletxeko jentia juten zan gero hori garbitzera, udaletxiak egitten zauen?

-Ez, ez, ez, noberak, beziñuak juntauta. Ba gaur hoixe ein bihar dou /bihou/

edo. Ein in biharko dou /bikou/ edo. Bai, bai, beziñuak, goikuek edo behekuek edo aldamenekuek lagunduta.

## 11. 1936-37 inguruan hasi ziren irratiak agertzen

- **Erref:** ESK-027/012
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:12:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

### Laburpena:

<p>Inork ez zuen irratorik izaten gerra aurretik eta 1936-37 inguruan agertu ziren lehen irratiak. Etxean izan zuten lehenengo irratia elektrikoa zen, arku formakoa.</p>

## 12. Jolasetako eta elizako kantuak gaztelaniaz

- **Erref:** ESK-027/013
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:12:20. **Bukatu:** 00:14:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Euskara » Euskararen egoera

### Laburpena:

Sokasaltoan gaztelaniazko abestiak abesten zituzten: "Al cocherito leré "Soy la reina de los mares"... Nola jolasaten zuten. Elizan ere gaztelaniaz abesten zuten gehiena, euskarazko kantu batzuk ere bazeuden arren.

## 13. Mezetara egunero; bederatziurrenak

- **Erref:** ESK-027/014
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

### Laburpena:

Elizara sarri joan behar izaten ziren. Bederatziurrenetara joan behar izaten ziren zinta zuri-gorriak jarrita. Bederatziurren desberdinak aipatzen ditu: San Joserena, arimena... Bederatziurren batzuetan euskarazko kantuak ere abesten zituzten. Gehienetan egunero joan behar izaten zuten mezetara.

## 14. Bazko eguneko prozesioa

- **Erref:** ESK-027/016
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:02:30. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

**Laburpena:**

<p>Bazko eguneko prozesioa gustatzen zitzaion gehien, prozesioan eramaten zen Jesu Kristoren irudiak benetakoa ematen zuelako. Irudia nolakoa zen eta nola eramaten zuten azaltzen du. Prozesioak Ama Birjinarekin bat egiten zuen bidean eta meza santurako elizara joaten ziren. Biharamunean, bezperak amaitu ostean Ama Birjinaren irudia mojetara itzultzen zuten.</p>

**15. Udaletxean bizitzen, senarra aguazila zelako**

- **Erref:** ESK-027/018
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:04:25. **Bukatu:** 00:05:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Udal langileak

**Laburpena:**

Udaletxean bizi izan ziren 32 urtean, senarra aguazila zenez han bizitzeko obligazioa zutelako.

**16. Eskoriatzako musika banda; inguruetako soinujoleak eta danbolinteroak**

- **Erref:** ESK-027/019
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:05:30. **Bukatu:** 00:09:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika

**Laburpena:**

Lehenago erromerietan txistua eta danbolina izaten ziren, eta geroago baita soinua ere. Berak betidanik ezagutu izan du musika banda Eskoriatzan. Gogoan du musika banda tresnak gurdian hartuta Atxorrotzera igo zen eguna. Aretxabaletan ez zuten bandarik eta gramola jartzen zuten. Garai batean banda gabe egon ziren eta orduan soinua izaten zuten. Inguruetako soinujoleak; danbolinteroak.

**17. Dantza lotua musika bandarekin**

- **Erref:** ESK-027/020
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:09:10. **Bukatu:** 00:10:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Musika

**Laburpena:**

Bandak jotzen zuenean dantza lotua egiten zuten. Neguan bandak 8etarako edo lehenago bukatzen zuen. Lehenbizi joaten zenak bonboa jotzen zuen

musikariak kioskora joan zitezten. 2-3 pieza joa eta atsedena hartzen zituzten.

## 18. Atxorrotzera 1937an lehenbiziko

- **Erref:** ESK-027/021
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:12:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

### Laburpena:

Atxorrotz egunean ez zieten uzten Atxorrotzera joaten. Egun horretan amonaren baserrira joaten ziren bazkaltzera. "Bolalekua" esaten zitzaion lekura joan eta goitik behera erroskilekin pasatzen zirenen inbidiz egoten ziren. Gerra denboran soldaduak egon ziren Atxorrotzen eta orduantxe joan zen lehenbiziko aldiz bertara, ingurua garbitzera joan ziren eta.

## 19. Emakumeak ezin tabernetan sartu senarrarekin ere

- **Erref:** ESK-027/023
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

### Laburpena:

Egun seinalatueta ez bazen, emakumeak ez ziren tabernetan sartzen, ezta senarrarekin ere. Senar-emazte gutxi ibiltzen ziren kalean igandetan. Bera 20 urte ingururekin sartu zen lehen aldiz taberna baten. Emakumeak etxean egoten ziren.

## 20. Lizarrara jaietara eta azokara

- **Erref:** ESK-027/025
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

### Laburpena:

Aitak gerra-denboran Lizarrako bat lagun egin zuen. Gerra ondorenean bisitan etortzen zitzaizkien hangoak eta gerora eurak ere hara joaten hasi ziren jaietan. Lizarran emakumeak lehenagotik hasita zeuden tabernetan sartzen. Azokara ere joan izan zen Lizarrara, piperrak erostera.

## 21. San Pedroetako "txopua" jartzea; San Isidroak

- **Erref:** ESK-027/026

- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:03:55. **Bukatu:** 00:06:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

**Laburpena:**

San Pedroetan "txopua" frontoian jartzen zen, puntan azak eta tipulak zituela. Frontoiarene ondoan bolalekua zegoen. Frontoia eta ingurua nolakoak ziren. San Isidro eguna (baserritarren eguna) ere ospatzen zen lehenago. Kanean bertan ere kale-baserri ugari ziren lehen. Goizean meza eta ondoren aureskua eta dantza egoten ziren danbolinarekin.

## 22. Zigor-dantza eta lino-dantza

- **Erref:** ESK-027/027
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Dantza

**Laburpena:**

San Pedroetan zigor-dantza egiten zen. Nortzuk egiten zuten eta nola egiten zen dantza azaltzen du. Lino-dantza nola egiten zen. Kantua bat abesten zen lino-dantzarekin.

## 23. San Pedroetan umeentzat merienda eta ardoa doan zahagitik

- **Erref:** ESK-027/028
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:11:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

**Laburpena:**

San Pedroetan eskolako umeei merienda ematen zitzaien: ogia eta makatza. Ardoa ere dohainik egoten zen jaietan, zahagia jartzen zen eta. Gizonek jokoan egiten zuten frontoian, mahaietan jarrita, ardo pitxarra alboan hartuta. Pontxea ere egiten zuten gizonek.

## 24. Gerra-denboran manta asko tindatu zen abrigoak egiteko

- **Erref:** ESK-027/032
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:02:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

**Laburpena:**

Bera neska gaztea zela soinekoren bat eta abriguren bat besterik ez zuen. Arropa asko tindatu egiten zen. Adibidez, gerra-denboran manta asko tindatu ziren abrigoak egiteko. 13 urte zituen gerra hasi zenean.

**25. Gerraoste luzea; errazionamendua; baserrietara jatera**

- **Erref:** ESK-027/033
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

**Laburpena:**

Gerra hasi zenean, 13 urte zituen eta Arrasaten zegoen orduan. Ez zuten ondo pasa. Gerraostea ere luzea izan zen, 1954ra arte errazionamendua egon zen eta. Beste kaletar askoren antzera, eurak ere baserrietara joaten ziren zerbait jatera: gazta, esne-zopa edo sagarrak... Zerbait ematen bazieten, pozik.

**26. Oporrik ez eta txango gutxi eskolatik**

- **Erref:** ESK-027/035
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:08:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena:**

<p>Lehen ez zen egoten oporrik. Eskolatik txango txikiren bat egiten zuten, baina oso gutxi. Berak Gatzagara gatz-fabrika ikustera eta marianisten museora bakarrik egin zituen txangoak, baina gogoan du beste 7 neska Debara eraman zituztela. Leintz-gatzagara txangoa oinez egin zuten.</p>

**27. Dorletako egunean Leintz Gatzagara**

- **Erref:** ESK-027/036
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:08:30. **Bukatu:** 00:10:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

**Laburpena:**

Osaba Leintz gatzagan bizi zen eta tarteka joaten ziren bisitan, batez ere Dorletako egunean. Oinez egiten zuten bidaia. Goizeko mezetara joaten ziren eta eguna bertan pasatzen zuen. Iluntzean berriz etxera oinez itzuli behar. Gerora bizikletan ere egiten zuten bidaia.

**28. Neskame lanetan Arrasaten, Bergaran eta Eibarren**

- **Erref:** ESK-027/037
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:10:15. **Bukatu:** 00:12:10

- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Lanbideak » Neskameak

**Laburpena:**

Neskame lanetan irabazitako diruak amak atera zituen gerra-denboran kartilatik. Geroago 17 urtetik 19ra Eibarren egon zen neskame eta bere gastuetan gastatzen zuen dirua, baina amak asko kontrolatzen zuen. Arrasatera ume-zain joan zenean hilean duro bat irabazten zuen.

## 29. Aurreragokoak Galiziara trenbideak egitera

- **Erref:** ESK-027/039
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Trenbideko langileak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena:**

Bera baino lehenagoko gizonak Galizia aldean trenbidea egiten ibiliak ziren. Eurak udaletxean bizi zirenean, gizonak atarian jarri eta orduko kontuak komentatzen ibiltzen ziren.

## 30. Umetako lanak baserrian; auzolana

- **Erref:** ESK-027/040
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:04:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

**Laburpena:**

<p>Baserriko lan ugari auzolanean egiten ziren. Garia ere auzolanean mozten zen. Igitaiaarekin mozten zen garia eta azpelak egiten ziren. Azpelak gari luze batekin lotzen ziren gero. Bera ere ibilitakoa da lan horretan. Umetan lapikoa zaintzen ere jartzen zituen amonak.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2025-12-19*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com